

ELAk lan egingo du aldaketa soziala Nafarroako Gobernu berriaren lehentasun bilaka dadin

ELAk oroitarazi die Gobernuari eta bera sostengatzen duten alderdiei ez dagoela aldaketa sozialerako aukerarik ez bada zerga-sisteman sakoneko aldaketarik egiten. Bestalde, sindikatuak ohartarazten du lan-harremanen esparruan aldaketa bateraezina dela erregimenak sortutako egitura klientelarrekin.

2015eko uztailaren 27a

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

0- SARRERA

Maiatzeko hauteskunderen ondorengo agertoki berriari UPN-PSN-PPren gehiengo politikoa bukatu da, eta aldaketaren aldeko gehiengo sozial bat badagoela ikusarazi du.

Ahaztu gabe oraindik indarrean dagoen erregimena egitura zabalago, konplexuago eta errotuagoa dela, ELAren ustez oso albiste ona izan da Nafarroan azken urteetan agindu izan duen erregimenaren porrota. Egin beharreko lehen irakurketa eredu politiko baten gainbehera da, UPN-PPren eredu, baina baita PSNrena ere, non politika (fiskalitatea, aurrekontuak...) elite ekonomiko, enpresarial eta erlijiosoaren interesen esanetara izan den, herritar nafar gehienek kaltetan.

Porrot egin du ere gizartearen zati handi bat baztertzen saiatu den ereduak, ez soilik arlo sozialean, baizik baita kulturean ere. Nafarroako aniztasun kulturalarekiko mespretxua, inposizioa eta aurkako lan aktiboa, batik bat euskararen eta euskal errealitatearekin lotuta dagoen guztiaren aurkakoa, bizikidetzaren propio gaiztotu duen politika ez ezik herritar asko eta askoren kontrako eraso izan da.

ELAk badaki berebiziko erronka daukagula aurrean. Aukera historikoa dugu murrizketa, diru-xahutzea, klientelismoa eta Nafarroako euskal errealitatearen jazarpena ekarri duten politikak amaiazteko. ELAk Nafarroan aldaketa politiko eta sozial sakon bat izan dadin saiatuko da, ziur baita erregimeneko indar politikoen itzulera galarazteko biderik egokiena herritar nafar gehienek aldarrikatzen duten benetako aldaketa ez zapuztea dela.

Maiatzaren 24ko foru-hauteskunderen aurretik ELAk agiri bat argitaratu zuen: "Nahi dugun aldaketa politiko eta sozialerako proposamenak"; beraz bi ataletan zatituta zegoen. Lehenengoan azaltzen zen ELAren iritziz aldaketa politiko eta soziala zertan datzan; hau hiru ardatzen inguruan kokatzen zuen sindikatuak:

- Egitura politiko eta instituzionalen demokratizazioa, parte hartzea sustatuaz eta klientelismoari amaiera emanez.
- Aurrekontu- eta zerga-politiken goitik beherako aldaketa.
- Nafarroako euskal errealitatearen jazarpen politikaren amaiera.

Bigarren atalean, berriz, jardunbiderako konpromiso zehatzak luzatzen genizkien Nafarroako gobernu osatzeko helburua zuten alderdi politikoei. Horretarako ELAk 10 ardatz proposatu zituen.

ELAren ustez, gobernu aldaketarekin batera aplikatzen diren politikak ere zeharo aldatu behar dira; horregatik Geroa Baik, EH Bilduk, Podemosek eta Izquierda-Ezkerrak sinatutako Nafarroako Gobernurako programaren inguruko akordioa aztertu beharra dago. Sindikatuaren ustez, politikak juzkatzerakoan funtsezkoa da edukiak aintzat hartzea, erretorikatik eta politikaren alde sinbolikoenetatik haratago.

I- NAFARROAKO GOBERNU-PROGRAMARI BURUZKO AKORDIOAREN BALORAZIOA

A) AKORDIORIK EZ DAGOEN PUNTU ADOSTUEI BURUZKO GOGOETA

Akordioaren edukia aztertu aurretik aipatu behar da hura sinatu duten alderdiek zerrenda bat egin dutela adostasunik lortu ez duten gaiekin. Hauetako batzuk garrantzitsuak dira, eta aipatuko dira ondorengo ataletan.

Akordioa iritsi ez denik ez du esan nahi Gobernuak ezer egingo ez duenik (adibidez, esaten denean Euskararen Lege berri bat egiteko adostasunik ez dagoela, horrek ez du esan nahi euskararen inguruko politikarik egingo ez denik). Baina agerikoa da oso zaila dela pentsatzea bloke honetan aipatzen diren gaietan aurrerapide sozialak izango direnik. Garrantzia duten gaietan adostasunik ez izateak mugatu egiten ditu gobernuaren aginpiderako aukerak.

B) GIZARTE-POLITIKAK

Gizarte-politikan gai zehatzetan aurrerapausoak hitzartu dira. Besteak beste, Hezkuntzan lehengo egoerara itzultzeko murrizketak kentzea, ratioetan, baja eta baimenen ordezkapenean, eskola-orduen kargari dagokienez; osasungintzan zeuden murrizketak kentzea ordezkapen eta absentzien estalduran; gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duten familien pobrezia energetikoa ekiditeko neurriak; egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen fakturak ez egitea; Osasunbidean haurdunaldia borondatez eteteko aukera bermatzea; hobekuntzak Gizarteratzeko errentan, edota PAlean urtebeteko luzamendua.

Hortik aurrera, gizarte-politikako atal desberdinak -zeinetan aurrekoak ere jasotzen diren- orokorkeriaz josita daude (behin eta berriz aipatzen dira “analizatu”, “aztertu”, “behatokiak sortu” eta horrelako hitzak). Puntu gehienetan zehaztasunik ez dago; horregatik, programaren inguruko akordioak ez dakar gizarte-politikan orientazio aldaketa handirik:

- Gastu publikoa gehitzeko konpromiso konkreturik (aurrekontuen zuzkidura gehitzea) ez dago osasungintzan, hezkuntzan, etxebizitzan edota gizarte-zerbitzuetan.
- Hainbat eskubide ez da legez ezartzen, esaterako alokairu sozialeko bizilekua izatekoa, sare publikoak eskatzen diren 0 eta 3 urte bitarteko plaza guztiak hornitzea, edota menpekotasun egoerak zerbitzu publiko, unibertsal eta doako baten bidez artatzea.
- Gizarteratzeko Errentaren hobekuntza ez da nahikoa argi zehazten (esaterako, ez da aipatzen zein zenbateko finkatuko den).
- Hizkuntza anbiguo batekin jantzita, ontzat ematen da Nafarroako AHTren lanekin jarraitzea, hots, ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik kaltegarria den azpiegitura ez baztertzea.
- Ez dago zorraren ikuskaritza egiteko konpromisorik. Nafarroako Gobernuak aurten 436 milioi euro ordaindu behar ditu zorra kitatzeko, 2010ean baino 292 milioi gehiago. Partida honek dagoeneko Gobernuaren gastuaren %11,6 jaten du. Zorra ikuskatuz gero erabaki liteke zenbateraino den zilegizkoa, eta zilegi ez dena ez ordaintzea ondorioztatzea.

C) ZERGA-POLITIKA

Zerga-politikan akordioak ez du fiskalitatea justu bat bermatzen, baita dauden beharrian sozialei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak behar besteko diru-sarrerak izan ditzan ere:

- PFEZean aldaketa gutxi izango da. Zehaztasun handirik ez dago, baina gobernu-akordioaren arabera aldaketa arin batzuk ezarriko dira (esaterako, tasa marjinal maximoa %50era igotzea, edota iaz hiru puntu, %24raino, jaitsi zen aurrezki-errentei ezarritako tasa maximoa igotzea).
- Sozietateen gaineko Zergan enpresei gutxi ordaintzen jarraitzea ahalbidetzen dien legedia mantenduko da (“I+G+i-ko kenketak bere horretan mantenduko dira”; tasa nominalaren aldaketak iaz onartu zen beherapena ezarri baino lehenagoko tasen azpitik uzten ditu; %13ko tasa minimo nominal bat aipatzen da, baina hau ez da halakorik, salbuespen garrantzitsuak zehazten baitira, etab.).
- Beraz, azken hamarkadetan ezarritako erreforma aurreko egoerara itzultzeko ez dago asmorik; erreforma horien bidez Nafarroako Gobernuak ehundaka milioi euro galtzen ari da urtero, eta zergak oso modu injustuan banatzen dira.
- Akordioak dio iruzur fiskalari eta ezkutuko ekonomiari jazartzeko “giza-baliabide espezializatuak (...) zeharo gehituko” direla. Hau berehala gauzatu behar da, hau bailitzateke iruzur fiskalaren jazarpena sinesgarri egiteko modu bakarra. ELAk bere agirian eskatzen zuen laneko ez diren errenta guztiak lau urteko epean ikuskatzea, eta horretarako beharrezko diren giza-baliabide eta materialak gehitzeko plana zehaztea.
- Zerga-politikan jasotako aldaketak ikusita pentsa liteke Nafarroako fiskalitatea EAEkoarekin parekatuko dela. ELAk sarri aldarrikatu izan du zerga-politika aldatu beharra, hala Nafarroan nola EAEn; horregatik, Foru-Erkidegoa Hego Euskal Herriko gainerako lurraldeekin parekatzea ez da inolako irtenbidea.

D) AURREKONTU-POLITIKAK BALDINTZATZEN DITUZTEN MUGAK

“Gastu-muga” izeneko erakunde batek aurrekontuan jaso dezakeen gehieneko kopurua da. Gastu-muga hau Nafarroako Gobernuaren kasuan bere diru-sarrera mailaren (zerga-politika) eta urtero bere gain hartzen duen defizitaren arabera izango da. Orain arte Nafarroako Gobernuak (Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Foru Aldundiek bezalaxe) espainiar Gobernuarekin adostu du urtero izan dezakeen defizit publikoa, eta onartu egin izan du Madrilek gainerako autonomia-erkidegoei ezartzen dien defizit maila bera. Esaterako, 2015erako defizita BPGd-aren %0,7 da, eta datorren urtekoa, %0,3.

Programaren inguruko akordioak ez du aurreikusten Nafarroako Gobernuak aurrekontu-planteamendu propioa egingo duenik, hots, Madrilen ezarritako defizit publikoa ez den besterik erabakiko duenik.

Beharrian sozialak estaltzeko gizarte-gastua asko gehitu behar da, eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak igoera handi bat izan behar du. Horretarako beharrezkoa litzateke diru-sarrera nahikoak izatea.

Nafarroako Gobernuak diru gehiago biltzeko aukera eman dezakeen zerga-politiko bati uko egiten badio, zorraren ordaina zalantzan jartzen ez badu eta bere defizit publiko maila beharrezkoa onartzen badu, izatez men egiten ari zaio gizarte-gastua modu egokian hobetu

ezin izango duen aurrekontu-politika bati.

Hain zuzen, esaterako, Nafarroako Gobernuak 2015an Osasungintzara edo Hezkuntzara bideratuko duen aurrekontua arlo berdinetan 2010an izan zena baino askoz txikiagoa da (100 milioi gutxiago osasunean eta 90, hezkuntzan), eta esparru hauetako gastu publikoa ELGEko batez besteko mailarekin parekatzeko urtero 300 milioi gehiago beharko litzateke hezkuntzan eta 400 gehiago osasungintzan.

E) LAN-HARREMANETAKO ERREGIMEN KLIENTELARRA

Esan gabe doa maiatzaren 24ko porrot politikoarekin batera delako “elkarrizketa soziala”rena ere gertatu zela. Herritar nafarrek babesak kendu diete UGT eta CCOO sindikatuen eta CEN patronalaren mesedetan josi izan den sare klientelarra gehien babestu duten alderdi politikoei.

Akordioak ez ditu elkarrizketa sozialeko erregimen klientelarraren oinarriak ukitzen.

Egia da Moderna Fundazioaren bukaera eta hau “hausnarketa estrategikorako plataforma berri batek” ordezkatzeko mahairatzen duela; aurrerapausoak aipatzen dituela beste gai batzutan, esaterako Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluari finantzazioa kentzea (aurreko legealdia amaieran presaka onartu zena); halaber, ordezkariak sindikala duten erakunde guztiei buruzko lege eta araudiak aldatzeko borondatea agertzen du, UGTren eta CCOOen esparru erreserbatu izaten jarrai ez dezaten. Halere, programak ez die gairik garrantzitsuenei heltzen.

Arazoa ez da konpontzen sistema oker bateko kide ez garenoi atea irekita. Behar-beharrezkoa da sistema bera desagitea. Hain zuzen, gauza jakina da aurreko erregimenaren zutabeetako bat CENek, UGTk eta CCOOek eraiki zutela hainbat arlotako funts publikoen inguruan (enplegua, lan osasuna, immigrazioa, etab.). Enplegu Planak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua eragile horientzako txoko pribatuak bilakatu dira, eta horien bidez Nafarroako aurrekontuetan milioiak eta milioiak bideratzen dira organizazio hauekin egiten diren hitzarmenetara (adibidez, 2 milioitik gora bakoitzarentzat, bakarrik langile okupatuentzako prestakuntzari dagokionez). Kontu Ganberak hainbat txostenetan irregulartasun handiak aipatu ditu, baina hauek ez dira zuzendu, borondate politikorik ez zegoelako.

Gobernu-akordioak sare hau ez du zalantzan jartzen. Izan ere, berari buruz mintzatzen da adosteke geratu diren gaien artean, eta idazketa eufemistikoak lausotuta (“Lan harremanak: enplegu-politik aktiboetarako funtsen kudeaketa eredu”). CENeko lehendakariaren adierazpenek, zeinetan ziur baitzegoen “kontzertazio eta elkarrizketa soziala”rekin jarraituko dela, agerian uzten dute gobernu berriaren zehaztasun eza.

ELAk berriro dio lan harremanen eremuan aldaketa ez dela bateragarri erregimenak sortutako egitura klientelarrekin.

F) KULTURAREN ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Aurrerapauso handienak izango dira normalizazio politikan eta Nafarroako euskal errealitatearen (hezkuntza, komunikabideak eta euskara) jazarpen politikaren amaierari dagokionez. Atal honetan gobernu-akordioak aurreko egoerarekiko neurriak jaso ditu.

Akordioak duela gutxi aldatu den Euskararen Legea ontzat ematen du, baina ez du konpromisorik aipatzen indarrean dagoen araudia aldatzeko, euskararen ofizialtasuna nafar lurralde osoan bermatu eta horrela herritar guztien hizkuntz-eskubideak aintzat hartze aldera. Izan ere, adostasunik gabeko gaien artean daude “Hizkuntz-politika; Euskararen Lege berria” edota “hizkuntz-eredu desberdinen arteko bizikidetza”.

II- ONDORIOAK

- ELAk berriro agertzen du lan egiteko prestutasuna aldaketa soziala Nafarroako Gobernu berriarentzat lehentasuna izan dadin. Politikak errotik aldatu behar direla aldarrikatzen dugu, eta hala adierazi genuen ere Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen aurretik plazaratu genuen agiriko proposamenetan. Sindikatuaren analisia eta proposamenak erakunde eta alderdi politikoekiko bere posizio autonomotik abiatuta egiten dira.
- ELAk ongi irizten dio gobernu berriak bere politika instituzionalean lurraldeko errealitate kultural osoa aintzat hartzeari, batetik justiziagatik eta urte askotako jazarpenaren ordain demokratikoa delako, eta bestetik nafarren arteko bizikidetzaren hobetzeko ekarpena delako.
- Kezkatzekoa da Nafarroako Gobernuaren programari buruzko akordioan, zeina Geroa Baik, EH Bilduk, Podemosek eta Izquierda-Ezkerrak sinatu duten, ez jasotzea funtsezko bi gai: behar adineko diru-sarrerak ahalbidetuko dituen fiskalitatearen aldaketa eta lan harremanen beste eredu bat.
- Zerga-politika aldatu ezean, hots, fiskalitate justua izatea eta biltzen den diru kopurua gehitzea ezinezkoa bada (oinarritzat hartuta iruzur fiskalaren jazarpena eta enpresek, errenta altuek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergen igoera) ezinezkoa da gizarte-gastura bideratutako aurrekontua behar bezala gehitzea. Kontutan izan behar da Nafarroako presio fiskala BPGd-aren %29 dela, 10 puntu beherago Europar Batasuneko batez besteko mailatik. Batez besteko maila hori izanez gero, urtean ia 2.000 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke. Kezkatzekoa da programaren inguruko akordioa sinatu duten lau alderdiek, hain jatorri desberdinekoak izanik, zerga-eredu honetan bat etorri izana, beste gai batzutan ez bezala.
- ELAk galdegiten du, aldaketarekin bateraezina delako, “elkarrizketa soziala” delakoaren inguruan eratu den erregimen perbertsoa desegitea; bere oinarria funts publikoetako milioika euro patronalaren, UGTren eta CCOOen esku uztea da, zuzenean beraiek kudea ditzaten.
- Aldaketa proposatzen duten gobernuen ekintza epe laburrean antzeman behar da. Aldaketa finkatzeko modurik hoberena ez da kontu handiz ibili eta gai jakin batzuk ez ukitzea, baizik zerbait eraldatzen ari dela ikusaraztea, berrikuntza hau benetakoa eta jendearen egoera hobetzeko izatea.
- ELAk harreman normalizatu eta iraunkorra izan nahi du Nafarroako Gobernu berriarekin. Gure asmoa da berehala gure proposamenak hari helaraztea, eta Gobernu-akordioari buruzko gure balorazioaren berri ematea.
- Berresten dugu mobilizazio soziala ezinbestekoa dela. Nafarroan benetako aldaketa politiko eta soziala izango bada, aurreko erregimen foralari eutsi dioten botereei aurre egin behar zaie. Borroka zail honetarako funtsezkoa da gizartearen presioa. Botere ekonomiko eta mediatikoak hamaika bidetatik eragiten diete presioa gobernuari eta gauzak aldatu nahi dituzten organizazioei. Gizarteak mobilizatuta egon behar du gobernu berriari aktiboki galdegiteko politiken sakoneko aldaketa. Hori da Nafarroak behar duen benetako aldaketa politiko eta soziala, eta ezin da nahastu gobernuetan dagoen alderdien joan-etorriarekin. Europan izan den antzeko hainbat egoeratik ondorioak atera beharrean gara.